

# Emakume Heroikoak
# Mujeres Heroicas

FEMMES HÉROÏQUES HEROIC WOMEN تاقراخ ءاسن
DIAMBARU JIGÉËN RROMNA ZOR

01 02 03 04 **05**

ANIVERSARIO
URTEURREN

2015 | 01

# Mujeres Heroicas



## Salimata Diabeté

Mujer de etnia Sambla, que a pesar de los obstáculos maneja instrumentos tradicionales africanos, porque en su cultura la mujer sólo puede cantar o bailar. Hoy en día, saca su familia adelante a través de la percusión.

Mujer de etnia Sambla, que a pesar de los obstáculos maneja instrumentos tradicionales africanos, porque en su cultura la mujer sólo puede cantar o bailar. Hoy en día, saca su familia adelante a través de la percusión.

Sökolé



## Lois Jenson

Primer proceso judicial contra el acoso laboral en los E.E. U.U. Ella, junto con sus compañeras, sufria comportamiento hostil por parte de sus compañeros hombres incluso acoso sexual, lenguaje abusivo, amenazas e intimidación.

Laneko jazarpenaren aurkako lehen prozesu judiziala AEBetan. Lankide zituen gizonezkoek etsaitasunez jokatzen zuten harekin eta gainerako emakumezko lankideekin, bai eta sexu-jazarpena, abusuzko hizkera, mehatxuak eta larderia erabili ere.

Etorkinekin Bat



## Marinés Suares

Mediadora, psicóloga y terapeuta familiar, que aboga por la mediación como forma de solucionar los conflictos.

Bitartekaria, psikologoa eta familia terapeuta da, eta bitartekaritzaren alde egiten du, gatazkak konpontzeko bide gisa.

Amekadi







## Vandana Shiva

## Maxima Acuña

Destacadas defensoras de la tierra, del campo, de los bosques, de las mujeres, del mundo agrícola, de la biodiversidad y de los valores indígenas, haciendo frente a la tiranía del sistema económico de las grandes corporaciones.

Lurraren, landa-eremuaren, basoen, emakumeen, nekazaritza-arloaren, biodibertsitatearen eta balio indigenen defendatzaile nabarmenetakoak dira, eta aurre egin diote korporazio handien sistema ekonomikoaren tiraniari.



Mujeres del mundo Babel
Munduko Emakumeak. Babel

## Marcela Lagarde

Feminista y antropóloga mexicana interesada en la sororidad como concepto para lograr el empoderamiento vital de las mujeres. La sororidad y la igualdad nos permiten transformar los roles de género que nos han obligado a jugar tradicionalmente y que nunca pedimos.

Mexikoko feminista eta antropologoa, sororitatea hartzen du ardatz, emakumeek beren bizitzan ahalduntzeko kontzeptu gisa. Sororitateak eta berdintasunak aukera ematen digute tradizioz nahitaez jokatu behar izan ditugun eta inoiz eskatu ez ditugun genero-rolak eraldatzeko.

MUJERES CON VOZ

Mujeres con Voz

2015 | 01

# Mujeres Heroicas



## Las mujeres del valle encantado

Este documental es un ejemplo de resistencia y reconstrucción colectiva emprendido por mujeres desplazadas por la violencia en Colombia.

Kolonbian indarkeriaren ondorioz lekualdatutako emakumeek hasitako erresistentzia eta berreraikuntza kolektiboaren adibidea da dokumental hau.



Angélica Padilla



## Ochy Curiel

Curiel es feminista radical y destaca que las voces de las mujeres afro, indígenas, gitanas, lesbianas siguen invisibles y el reto es reconocer las acciones y las teorías de estas mujeres. Ella promueve el feminismo decolonial como una forma de combatir el patriarcado, el clasismo y el racismo.

Curiel feminista erradikala da, eta nabarmentzen du emakume afro, indigena, ijito, lesbiana eta abarren ahotsak ikusezinak direla oraindik, eta, beraz, emakume horien ekintzen eta teorien balioa onartzea dela erronka. Berak feminismo dekoloniala sustatzen du, patriarkatuari, klasismoari eta arrazismoari aurre egiteko modu gisa.

La Posada de los Abrazos



## Nawal al Sa´dawi

Es una mujer feminista y disidente de Egipto que ha sufrido mutilación genital femenina, un acontecimiento que le ha marcado la vida. En su trabajo aborda el tabú de la sexualidad de la mujer musulmana, la religión y el trauma de la ablación del clítoris.

Egiptoko emakume feminista eta disidentea da; emakumeei egiten zaien mutilazio genitala jasan du, eta gertakari horrek bizitza markatu dio. Emakume musulmanaren sexualitatearen tabua, erlijioa eta klitoriaren ablazioaren trauma jorratzen ditu bere lanean.

Munduko Medikuak



## Justine Masika

Activista congolesa que trabaja para el bienestar de las mujeres de entornos rurales y defiende los derechos humanos. Lidera la asociación "Synergie des femmes pour les victimes de violences sexuelles" en la que asisten a mujeres víctimas de violencia sexual a nivel médico, psicológico, y judicial y brindan asesoramiento laboral para que éstas consigan ser independientes económicamente.

Kongoko ekintzaile honek nekazari-inguruetako emakumeen ongizatearen eta giza eskubideen alde lan egiten du. "Synergie des femmes pour les victimes de violences sexuelles" elkarteko burua da. Elkarte horretan, osasun-laguntza eta laguntza psikologikoa eta judiziala ematen diete sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei, bai eta lan-aholkularitza ere, ekonomikoki independenteak izan daitezen.

Ellacuría Fundazioa / Alboan



## María Elena Moyano

Fue una mujer feminista y luchadora social que fue asesinada por un grupo terrorista en Lima. Luchaba contra la pobreza y defendía los derechos de las mujeres y de la población peruana en general.

Emakume feminista eta borrokalari soziala izan zen, eta talde terrorista batek hil zuen Liman. Pobreziaren kontra borrokatzen zen, eta emakumeen eta, oro har, Peruko biztanleen eskubideak defendatzen zituen.

Histeria Kolektiboa

2016 | 02

# Mujeres Heroicas



## Maria Carme Boqué Torremorrell

Impulsora del desarrollo y la mediación escolar, profesora titular de la Universitat Ramon Llull de Barcelona e investigadora de la cultura de paz, participación democrática, ciudadania, convivencia escolar y gestión positiva de conflictos.

Eskolako garapenaren eta bitartekaritzaren bultzatzailea, Bartzelonako Ramon Llull Unibertsitateko irakasle titularra, eta bakearen kulturaren, parte-hartze demokratikoaren, herritartasunaren, eskola-bizikidetzaren eta gatazken kudeaketa positiboaren ikertzailea.

Amekadi



## Juana Azurduy

Juana representó la lucha armada de la población indigena y mestiza alto-peruana, involucrada en la causa independentista, tomó las armas contra los realistas en una sociedad que negaba el acceso de las mujeres a la vida política.

Goialdeetako Peruko biztanleria indigena eta mestizoaren borroka armatua irudikatu zuen Juanak, auzi independentistan nahastu baitzen, armak hartu baitzituen errealisten kontra, gizarte hartan emakumeek ez baitzuten modurik bizitza politikora sartzeko.

Mujeres con Voz



## María Montessori

Educadora, científica, médica, psiquiatra, filósofa, psicóloga, devota católica, feminista y humanista italiana. Desarrolló el método Montessori mediante el cual quiso reformar la metodología y la psicología de la educación.

Italiako emakume hau hezitzailea, zientzialaria, medikua, psikiatra, filosofoa, psikologoa, katoliko fededuna, feminista eta humanista izan zen. Montessori metodoa garatu zuen, eta, horren bidez, hezkuntzaren metodologia eta psikologia erreformatu nahi izan zituen.

Munduko Medikuak



## Gioconda Belli

Poeta y novelista, vinculada al Frente Sandinista de Liberación Nacional de 1970 a 1994. Los dos temas principales de sus obras son el compromiso político y el ser y sentir femenino.

Poeta eta eleberrigilea, Nazio Askapenerako Fronte Sandinistari lotua 1970etik 1994ra. Konpromiso politikoa eta emakume izatea eta sentitzea dira idazle honen lanetako bi gai nagusiak.

Histeria Kolektiboa



## Myriam Cameros Sierra

Se dio a conocer con la publicación *"la cenicienta que no quería comer perdices"*, entre otros, mediante los que trabaja temas como la coeducación, la homofobia y la violencia de género.

*La cenicienta que no quería comer perdices* argitalpenarekin eman zuen bere burua ezagutzera; besteak beste, baterako hezkuntza, homofobia eta genero-indarkeria lantzen ditu.

La Posada de los Abrazos




## Beatriz (El Salvador)

Joven cuya vida corrió peligro por la ley de prohibición del aborto; un caso que puso en el punto de mira la ley que prohibe el aborto bajo toda circunstancia, que discrimina a mujeres con escasos recursos económicos y que afecta a cinco países de América Latina.

Abortua debekatzeko legea dela-eta, gazte honen bizitza arriskuan egon zen; kasu honek jomugan jarri zuen abortua egoera guztietan debekatzen duen legea, baliabide ekonomiko urriak dituzten emakumeak diskriminatzen baititu; Latinoamerikako bost herrialderi eragiten die.

Mundubat



## Graca Samo

Activista por los derechos de las mujeres en desarrollo internacional; directora ejecutiva del Foro de la Mujer para la igualdad entre mujeres y hombres y el empoderamiento de la mujer en Mozambique; y coordinadora del secretariado internacional de la Marcha Mundial de las Mujeres, movimiento mundial de solidaridad para la erradicación de la pobreza y la violencia contra la mujer.

Nazioarteko garapeneko emakumeen eskubideen aldeko ekintzailea; emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumearen ahalduntzerako Emakumeen Foroko zuzendari exekutiboa Mozambiken; eta Emakumeen Mundu Martxaren nazioarteko idazkaritzako koordinatzailea –azken hau pobrezia eta emakumearen kontrako indarkeria desagerrarazteko elkartasuneko munduko mugimendua da–.



Mujeres del mundo Babel
Munduko Emakumeak. Babel



## Justine Masika

**Mesa redonda:**
"Diálogos entre mujeres valientes".

**Mahai-ingurua:**
"Emakume ausarten arteko elkarrizketak".



Ellacuría Fundazioa



## Bronislawa wajs (Papuza)

Primera poetisa gitana cuya gloria poética provocó el rechazo de los suyos. Su historia es una tragedia marcada por la guerra y por la amenaza constante del mundo "no gitano".

Lehenengo poeta ijitoa izan zen, eta bere aintza poetikoak bere artekoen arbuioa piztu zuen. Bere istorioa tragedia bat da, gerrak eta "ijito ez den" munduaren etengabeko mehatxuak markatua.

sarean

Sarean



2017 | 03

# Mujeres Heroicas



## Wangari Muta

Bióloga y ecologista, fue la primera mujer africana en recibir el Premio Nobel de la Paz por sus contribuciones al desarrollo sostenible, la democracia y la paz, la primera mujer en África Oriental y Central en obtener un doctorado y la primera mujer profesora en Kenia.

Biologoa eta ekologista. Garapen iraunkorrari, demokraziari eta bakeari egindako ekarpenengatik Bakearen Nobel saria jaso zuen lehen emakume afrikarra izan zen. Ekialdeko eta Erdialdeko Afrikan doktoretza lortu zuen lehen emakumea eta Kenyan irakaslea izan zen lehen emakumea.

Zubietxe



## Regraguia Benhila

Marruecos. Pintora especializada en arte naif. Fue condecorada por el rey Mohammed VI de Wissam al Mérito Nacional del oficial de orden. Autodidacta, artista singular y libre, fue conocida por su original trayectoria, sus contribuciones sociales y culturales y sus acciones por el espíritu del diálogo intercultural.

Maroko. Arte naifean espezializatutako pintorea. Mohammed VI.a erregeak kondekoratu zuen, ordena ofizialaren Meritu Nazionaleko Wissam kondekorazioa emanda. Autodidakta, artista berezia eta askea, ezaguna izan zen bere ibilbide bereziagatik, egin zituen ekarpen sozial eta kulturalengatik, eta elkarrizketa interkulturaleko espirituaren alde egin zituen ekintzengatik.

Ahizpatasuna



## Carme Valls Llovet

Médica especializada en medicina con perspectiva de género y endocrinología. También ha sido profesora de la Universitat de Barcelona y es autora de una extensa bibliografía de divulgación médica sobre la invisibilización del factor diferencial de la enfermedad por razones de género. Además, es impulsora de la revista Mujeres y Salud.

Genero-ikuspegia duen medikuntzan eta endokrinologian espezializatutako medikua. Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea ere izan da, eta dibulgazio medikoko bibliografia zabal baten egilea da, genero-arrazoiengatik gaixotasunaren faktore bereizgarria ikusezin bihurtzeari buruzkoa. Horrez gain, Mujeres y Salud aldizkariaren bultzatzailea da.

Munduko Medikuak



## Chavela Vargas

Una de las cantantes más conocidas de la historia de México, considerada polémica y rebelde, fue pionera de la ranchera por su personalidad y talento. Puso esas piedras en los caminos que nos permiten transitar hacia la libertad sexual y afectiva.

Mexikoko historiako abeslaririk ezagunenetako bat, polemiko eta errebeldetzat hartua, rantxera konposizioaren aitzindaria izan zen bere nortasun eta talentuarengatik. Harri horiek jarri zituen, askatasun sexual eta afektiborantz ibiltzeko aukera ematen diguten bideetan.

Aldarte



## Mertxe Gómez

Mertxe Gómez, "a pesar de las reticencias que tiene con esta definición", trabajó con mujeres que ejercían la prostitución en Las Cortes (Bilbao) durante la década de los 80 y 90. A través de su testimonio trató de indagar cuál era la situación de estas mujeres para construir un relato del barrio en el que estén todas las mujeres incluidas.

Mertxe Gómezek Gorte kalean (Bilbo) prostituzioan aritzen ziren emakumeekin lan egin zuen, 80ko eta 90eko hamarkadetan, "definizio horrekin dituen errezeloak gorabehera". Beraien testigantzak jasoz, emakume horien egoera zein zen ikertzen saiatu zen, auzoaren kontakizun bat eraikitzeko, emakume guztiak barnean hartuta.

Pikara Magazine



## Virginia Johnson

Investigadora sexual y terapeuta que realizó junto con el ginecólogo William H. Masters una investigación pionera sobre la sexualidad humana. Inteligente, luchadora y valiente en su vida privada, cualidades que utilizó también en su dimensión profesional y que le llevó a ser una pieza clave de la Historia de la Sexología a nivel mundial.

Ikertzaile sexual eta terapeuta honek giza sexualitateari buruzko ikerketa aitzindaria egin zuen William H. Masters ginekologoarekin batera. Adimentsua, borrokalaria eta ausarta izan zen bere bizitza pribatuan; ezaugarri horiek erabili zituen bere dimentsio profesionalean ere, eta mundu mailako Sexologiaren Historiako funtsezko atala izatera iritsi zen.

Mundo Ivaginario



## Alejandra Pizarnik

Poeta argentina de mediados de siglo XX que dio luz a la poesía realizada por mujeres. Pura vida y muerte se juntan en esta escritora de existencia intensa y cuerpo fundido en creación.

XX. mende erdialdeko poeta argentinarra, emakumeek egindako poesiari argia eman ziona. Bizitza eta heriotza hutsa elkartzen dira idazle honengan, haren existentzia bizia eta gorputza galdatu egiten baitira sorkuntzan.

HISTERIA

Histeria Kolektiboa








MUJERES HEROICAS
Reflexionando sobre el trabajo de...





2018 | Mujeres Heroicas
04



## Jeanne Rolande

Filóloga senegalesa y feminista que ha estudiado la situación de las mujeres negras en Euskal Herria teniendo en cuenta su situación familiar, laboral e identidad. Forma parte también de Biltzen (Servicio Vasco de Integración y Convivencia).

Senegalgo filologo feminista honek Euskal Herriko emakume beltzen egoera aztertu du, haien familia-, lan- eta nortasun-egoera kontuan hartuta. Biltzen Integraziorako eta Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren parte ere bada.

Firekutzen



## Las Sirgueras
## Zirgariak

Mujeres que a finales del siglo XIX arrastraban con sirgas (cuerdas gruesas) embarcaciones llenas de mercancías y minerales.

XIX. mendearen amaieran salgaiz eta mineralez betetako ontziak sirgekin (soka lodiekin) herrestan eramaten zituzten emakumeak.



La morada



## Mujeres Valientes

Encuentro de mujeres diversas con el fin de reforzar el valor de la palabra de las mujeres, la credibilidad de nuestros mensajes y la valentía de decidir lo que pensamos y sentimos.

Era askotako emakumeen topaketa, emakumeen hitzaren balioa, gure mezuen sinesgarritasuna, eta pentsatzen eta sentitzen duguna erabakitzeko ausardia indartzeko.

Ellacuría Fundazioa



## Elisa Ortega Montilla

Licenciada en Trabajo Social y con una maestría en Educación y Derechos Humanos. Ha trabajado con grupos de personas usuarias de drogas, víctimas de violencia doméstica, comunidad gitana en España, jóvenes LGTB, sin hogar y adultos con discapacidad intelectual en Los Ángeles, incorporando en todas estas comunidades el arte como herramienta para empoderarlas.

Gizarte Lanean lizentziaduna da, eta Hezkuntza eta Giza Eskubideetako masutza du egina. Drogen erabiltzaile-taldeekin, etxeko indarkeriaren biktimekin, Espainiako ijito-komunitatearekin, LGTB gazteekin, etxerik gabekoekin eta adimen-urritasuna duten helduekin lan egin du Los Angelesen, eta komunitate horietan guztietan artea sartu du horiek ahalduntzeko tresna gisa.

Marienea



## Betty Dodson

Célebre educadora sexual que ha enseñado a muchas mujeres cómo disfrutar de sus cuerpos, cómo masturbarse y tener orgasmos.

Sexu-hezitzaile ospetsu honek emakume askori irakatsi die beren gorputzez nola gozatu, nola masturbatu eta orgasmoak nola izan.

Mundo Ivaginario



## Khaira

Entrevistas a Khaira, vecina del barrio de San Francisco y que forma parte del AMPA de Miribilla.

Khairari egindako elkarrizketak. San Frantzisko auzoko bizilaguna, eta Miribillako guraso-elkarteko kidea da.




Pikara Magazine

# Mujeres Heroicas

2018 | 04



## Ana Nzinga Mbande

Una valiente e inteligente guerrera que fue una de las figuras clave en la resistencia de África frente al colonialismo en el siglo XVII. Luchó durante cuatro décadas contra la ocupación europea y la esclavitud de su pueblo.

Emakume gerlari ausart eta adimentsu hau funtsezko pertsonetako bat izan zen Afrikak XVII. mendean kolonialismoaren kontra izan zuen erresistentzian. Lau hamarkadaz borrokatu zen europarren okupazioaren eta bere herriaren esklabotzaren kontra.

Movimiento Panafricano
Mugimendu Panafrikarra



## Onintza Enbeita

Feminista y abertzale. Fue la primera mujer ganadora del Campeonato de Bertsos de Bizkaia. Idoia es escritora, licenciada en filología vasca y se dedica a la docencia e investigación sobre el euskera.

Onintza bertsolaria, kazetaria, feminista eta abertzalea da. Bizkaiko Bertso Txapelketa irabazi zuen lehen emakumea izan zen. Idoia idazlea eta Euskal Filologian lizentziaduna da, eta euskararen irakaskuntzan eta ikerketan aritzen da.



## Idoia Carramiñana

Feminista y abertzale. Fue la primera mujer ganadora del Campeonato de Bertsos de Bizkaia. Idoia es escritora, licenciada en filología vasca y se dedica a la docencia e investigación sobre el euskera.

Onintza bertsolaria, kazetaria, feminista eta abertzalea da. Bizkaiko Bertso Txapelketa irabazi zuen lehen emakumea izan zen. Idoia idazlea eta Euskal Filologian lizentziaduna da, eta euskararen irakaskuntzan eta ikerketan aritzen da.

Zubietxe




## Mujeres ejemplares de la villa

## Hiriko emakume eredugarriak

**"Ibiliz"** Paseo por la historia. Recorrido por Bilbao para hablar sobre ocho mujeres relevantes de la ciudad.

**"Ibiliz"**, ibilaldia historian zehar. Bilbon zeharreko ibilbidea, hiriko zortzi emakume aipagarriri buruz hitz egiteko.

Asociación T4
T4 Elkartea



## Red Latinoamericana y del Caribe Católicas por el Derecho a Decidir

Una forma de conocer el trabajo de este movimiento autónomo de personas católicas comprometidas con la búsqueda de la justicia social y el cambio de patrones culturales y religiosos. Su objetivo es promover y defender los derechos de las mujeres.

Justizia soziala bilatzeko eta eredu kulturalak eta erlijiosoak aldatzeko konpromisoa duten pertsona katolikoen mugimendu autonomo honen lana ezagutzeko modu bat. Bere helburua emakumeen eskubideak sustatzea eta defendatzea da.

Mujeres con Voz






## V Aniversario de Mujeres Heroicas inauguración

Emakume Heroikoen V. Urteurrena. Inaugurazioa: Firekutzen eta Zirikatuz feminista

Firekutzen / Zirikatuz feminista



## Mujeres Valientes

**"Mujeres Valientes: Ir más allá de los límites", Cholitas Escaladoras.**
Las cholitas son ejemplo del espíritu de la mujer contemporánea que mantiene sus raíces, y al escalar montañas y desafiar latitudes han podido dar visibilidad a su identidad cultural.

**"Emakume ausartak: Mugetatik harantz joan", Cholitak Eskalatzaileak.**
Cholitak bere sustraiei eusten dien emakume garaikidearen espirituaren eredua dira, eta, mendiak eskalatzean eta latitudeei desafio egitean, agerian jarri ahal izan dute beren nortasun kulturala.

Ellacuría Fundazioa



## Remei Sipi Mayo

Escritora y ensayista, activista por la causa de la mujer africana, secretaria de la Asociación de Mujeres E'Waiso Ipola y promotora de la federación de asociaciones de mujeres africanas en España.

Idazle eta saiakera-egilea, emakume afrikarraren kausaren aldeko ekintzailea, E'Waiso Ipola Emakumeen Elkarteko idazkaria, eta Afrikako emakume-elkarteen federazioaren sustatzailea Espainian.

Firekutzen







## May Serrano

## Silvia Borao

**May** es una escritora "casada consigo misma". Estudió marketing y publicidad y teatro, realiza talleres de teatro para mujeres, organiza bodas con una misma y cree en la vida y en la igualdad de todas las personas. **Silvia**, es una mujer creadora de largo recorrido en el ámbito de la pintura, de la danza y como agrónoma.

**May** "bere buruarekin ezkondurik" dagoen idazlea da. Marketina, publizitatea eta antzerkia ikasi zituen, emakumeentzako antzerki-tailerrak egiten ditu, emakumeek bakoitzak bere buaruarekin egindako ezkontzak antolatzen ditu, eta pertsona guztien berdintasunean eta bizitzan sinesten du. **Silvia**, pintura, dantza eta agronomo esparruetako ibilbide luzeko sortzailea da.

HISTERIA

ArgazkilarHITZA

Mujeres Poetas Internacional

Histeria Kolektiboa /
ArgazkilarHITZA / Mujeres Poetas Internacional

## Salta la Raya

Exposición de arte de mujeres heroicas.

Emakume heroikoen arte-erakusketa.



zubietxe

Zubietxe







## Mikeas Sánchez

## Addy Pérez

"Defensoras chiapanecas alzando la voz frente a los conflictos eco-territoriales". **Mikeas** del Movimiento Indígena del Pueblo Creyente Zoque en Defensa de la Vida y la Tierra (ZODEVITE) y **Addy** del Centro de Derechos de la Mujer (CDMCH), pelean a muerte para evitar que las industrias extractivistas arrasen sus ecosistemas y territorios a través de megaproyectos que no les reportarán ningún beneficio, en un nuevo proceso colonialista y depredador. Además, llevan 15 años trabajando junto a sus compañeras, con mujeres de las comunidades indígenas amenazadas.

"Chiapaseko emakume defendatzaileak ahotsa goratzen eko-lurraldeko gatazken kontra". **Mikeas**, Bizitzaren eta Lurraren Defentsan dauden Zoque Herri Fededunaren Mugimendu Indigenaren parte da (ZODEVITE) eta **Addy**, Emakumeen Eskubideen Zentroaren parte da (CDMCH). Biok heriotzaraino borrokatzen dute, industria erauzgarriek ekosistemak eta lurraldeak suntsitu ez ditzaten. Hau prozesu kolonialista eta harrapari berri batean eta onurarik emango ez dieten megaproiektuen bidez egiten dute. Horrez gain, 15 urte daramatzate beren lankideekin batera, mehatxatutako komunitate indigenetako emakumeekin lanean.

Lumatik

## Rosa Almirall

Ginecóloga impulsora de Tránsit, la unidad de atención a la salud del colectivo trans en Catalunya. Rosa Almirall es ginecóloga, lleva 38 años ejerciendo su profesión y es directora de área de Atención a la Salud Sexual y Reproductiva (ASSIR) de Barce¬lona, un servicio que forma parte del Institut Català de la Salut de la Generalitat.

Tránsit unitatea bultzatu zuen ginekologoa; Kataluniako trans kolektiboaren osasunaren arretarako unitatea da Tránsit. Rosa Almirall ginekologoa da, 38 urte daramatza bere lanbidean, eta Bartzelonako Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretako (ASSIR) zuzendaria da. Zerbitzu hori Generalitateko Institut Català de la Salut erakundearen barruan dago.

Munduko Medikuak



## Resiliencia de las mujeres
## Emakumeen erresilientzia

Inteligencia Social, trabajando la superación del trauma a través del arte de tres mujeres: **Lita Cabellut**, artista multidisciplinar española que trabaja con óleo sobre lienzo, dibujos en papel, escultura, fotografía, poesía, poemas visuales y vídeos; **Louise Bourgeois**, una de las artistas y escultoras francesas más importantes del arte contemporáneo, nacionalizada estadounidense y conocida por sus esculturas de arañas, por lo que le apodaron "Mujer Araña"; y **Camille Claudel**, escultora francesa que desde su infancia fue muy apasionada de la escultura, jugaba con el barro y esculpía a las personas que la rodeaban.

Adimen Soziala, traumaren gainditzea hiru emakumeren artearen bidez landuz: **Lita Cabellut**, mihise gaineko olioarekin, paperezko marrazkiekin, eskulturarekin, poesiarekin, ikusizko olerkiekin eta bideoekin lan egiten duen espainiar artista multidiziplinarra; **Louise Bourgeois**, arte garaikideko artista eta eskultore frantziar garrantzitsuenetako bat, estatubatuarra nazionalizatua eta armiarmen eskulturengatik ezaguna, "Emakume Armiarma" izendatu zuten; eta **Camille Claudel**, bere haurtzarotik eskulturarekiko grinatsua izan zen eskultore frantziarra, lokatzarekin jolasten zuen eta inguruan zituen pertsonak zizelkatzen zituen.

Gizabi
Inteligencia social

Gizabi



## Feminismo y Movimiento de Mujeres en África
## Feminismoa eta Emakumeen Mugimendua Afrikan

Una forma de conocer cuáles son los principales temas en la agenda del feminismo en África y algunas de las mujeres que están impulsando el cambio en el continente, de la mano de **Jeanne Rolande Dacougna** e impulsado por el Centro de Recursos Africanistas.

Afrikan feminismoak duen agendan gai nagusiak zein diren jakiteko modu bat da, eta kontinentean aldaketa bultzatzen ari diren emakume batzuk ezagutzeko ere bai, **Jeanne Rolande Dacougna**ren eskutik eta Baliabide Afrikanisten Zentroak bultzatuta.

Si! Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

Solidaridad Internacional
Nazioarteko elkartasuna




## Ocupación de los espacios y reivindicación para la transformación social

## Espazioen okupazioa eta eraldaketa sozialerako aldarrikapena

Recorrido histórico y vital en Bilbao desde la perspectiva de **Pilar Gil**, militante feminista y trabajadora de hogar. Una forma de ver el activismo como cambio social y relacional y la creación de redes desde el feminismo, y de reconocer los trabajos de cuidados y los derechos laborales.

Ibilbide historikoa eta bizia Bilbotik, **Pilar Gil** militante feminista eta etxeko langilearen ikuspegitik. Aktibismoa aldaketa sozial eta erlazional gisa ikusteko, feminismotik sareak sortzeko, eta, orobat, zaintza-lanak eta lan-eskubideak aitortzeko modu bat.

La Posada de los Abrazos



## Feminismo, diversidad sexual y sindicalismo

**"Organizadas cambiamos el mundo"**
Conversatorio con **Clarisa Gambera**, secretaria de Género de la CTAA Capital y **Estíbaliz Montero**, secretaria de Mujer y Juventud de CCOO de Euskadi.

CCOO bakea eta elkartasuna fundación paz y solidaridad

Fundación Paz y Solidaridad
Bakea eta Elkartasuna Fundazioa



## Feminismoa, dibertsitate sexuala eta sindikalismoa

**"Antolatuta mundua aldatuko dugu"** Elkarrizketa **Clarisa Gambera**, CTAA Capital-eko Genero Idazkaria, eta **Estibaliz Montero**, Euskadiko Langile Komisioetako Emakume eta Gazteria Idazkariarekin.

CCOO
emakumearen idazkaritza

Secretaría de la Mujer de CCOO
Langile Komisioetako Emakumearen Idazkaritza

## Aniversario "20 años de Mujeres del mundo"
## "Munduko Emakumeak elkartearen 20. urteurrena"

Un recorrido por estos 20 años de andadura de esta asociación de mujeres diversas y vecinas de Bizkaia, activistas feministas intercionalistas, que proceden de diversas culturas y continentes.

Bizkaiko era askotako emakumeen elkarte honek 20 urte hauetan egindako ibilbidea; kultura eta kontinente desberdinetatik etorritako ekintzaile feminista internazionalistak dira.




Mujeres del mundo Babel
Munduko Emakumeak. Babel

Sokoleé

Etorkinekin Bat

amekadi
Asociación de mediación de Euskadi
Euskadiko bitartekaritza Elkartea

Mundubira Emakumeak
Mujeres del mundo "Babel"
Fika, 5 Bajo · 48006 BILBAO

MUJERES CON VOZ

La Posada de los Abrazos

ELLACURIA FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA CENTRO SOCIAL

ALBOAN

HISTERIA

Mundubat

zubietxe

Ahizpatasuna

sarean

ALDARTE

Pikara
online magazine

Firekitzen

la bilbao morada.

MOVIMIENTO PANAFRICANO

MARIENEA

T4
Zurekin a tu lado

ZIRIKATUZ FEMINISTA

ArgazkilarHITZA

Mujeres Poetas Internacional

lumaltik HERRIAK

Gizabi
Inteligencia social

Si!
Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

CCOO
bakea eta elkartasuna
fundación paz y solidaridad

CCOO
emakumearen idazkaritza

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

MUNDUKO MEDIKUAK